

## Udalak 1.600 bonu berri jarriko ditu eskuragarri Gabonetako kanpainarako

- **Bonu berriek 50 euroko balioa izango dute eta astelehenetik aurrera erosi ahal izango dira 25 euroren truke SALKIN-en lokalean.**
- **Aldez aurretik zenbakitutako tiketak esleituko dira, pilaketak saihesteko eta bonuak erosoan eskuratu ahal izateko.**

Andoaingo Udalak kontsumorako bonoen partida berri bat jarriko du andoaindarren eskura Gabon sasoiari begira. Hala, *HAN EDO HEMEN*, *EROSI ANDOAINEN* kanpainak 1.600 bonu berri jarriko ditu martxan, herriko denda eta ostalaritza-establezimenduetan kontsumitzeko; Ekonomia Sustapen, Enplegu eta Gazteria Sailak, SALKIN elkartearekin batera sustatutako ekimen honen barruan. Honela, bonuek 50 euroko balioa izango dute eta 25 euroko prezioan salduko dira; horretarako, Udalak gainerako erdia ordainduko du.

Gabonetako kanpaina urtarrilaren 6ra arte luzatuko da eta bonuak datorren astelehenetik, azaroak 15, aurrera erosi ahal izango dira SALKINen lokalean. Gaur goizean aurkeztu dute kanpaina berria, eta bertan izan dira Maider Láinez Andoaingo alkatea, Mari Jose Izagirre Sustapen Ekonomiko, Enplegu eta Gazteria zinegotzia, Maite Ramos SALKINeko presidentea eta Alexander Huitzi, Jose Luis Verdasco, Txitxu Ruiz eta Pepe Iparragirre ordezkari politikoak.

Kanpainaren bultzada berri honek, Andoaingo Udala pandemian zehar gehien zigortutako sektoreetako batzuei ematen ari zaien babesari erantzuten dio, eta, aldi berean, ekonomian eta herriko enpleguan zuzenean inbertitzea du helburu. Ekimena aurkezteko prentsaurrekoan, Mari Jose Izagirre arloko arduraduna oso baikor agertu da ekimenak urtean zehar izan duen "harrera bikainaren" aurrean — hau hirugarren aldia izango da —, eta arrakasta errepikatu egingo dela uste du. "Benetan pozik gaude kanpaina honek izan duen erantzunarekin", azaldu du Izagirrek, "merkatariak eta ostalariek eta herikide askok hala adierazi" baitiote. Alde horretatik, aurreko edizioetan bonuak oso denbora laburrean agortu zirela ikusita, eta pilaketak saihesteko asmoz, interesdunek aldez aurretik tiket zenbakitu bat erosteko aukera izango dute, ondoren bonuak erosteko bi eguneko epea izango dutelarik.

Zinegotziak azpimarratu duenez, "Kanpainak **80.000 euroko injekzio zuzena ekarriko du tokiko merkataritzara**, eta aurreko kanpainetako 120.000 euroko gastu zuzenari gehituko zaio". Izagirreren arabera, "Andoaingo dirua da, herrian geratzen dena, eta ostalaritzaren eta tokiko merkataritzaren ahaleginari eta garrantziari balioa eman nahi dio, bai ekonomikoki, bai sozialki". Era berean, SALKIN elkartearekin izandako lankidetzak estua eskertu du. Halaber, eskerrak eman dizkie andoaindarrei, "gure merkataritzaren eta ostalaritzaren alde apustu egiten jarraitzeagatik. Kalitatearen, tratu onaren eta konpromisoaren sinonimo dira gure denda, komertzio, taberna eta jatetxeak".

Alkateak ekitaldiaren amaieran adierazi duenez, "Gabonak eta erosketa-aldi nagusia hurbiltzen ari direnez, **kanpaina hau pizgarria izango da**, eta, batez ere, **tokiko merkataritzaren aldeko apustu garbia**, beste 80.000 euro Andoainen geratuko baitira".

“Udaletik, beste behin ere, hurbileko merkataritzaren alde egiten dugu, eta, horregatik, Andoainen kontsumitzera gonbidatzen ditugu herritar guztiak, tokiko merkataritzak eta ostalaritzak gure beharra baitute, eta, guztion artean, inoiz baino gehiago gure egin behar dugu kanpaina honen *Han edo hemen, erosi Andoainen leloa*” azpimarratu du Lainezek.

### **Bonuak nola eskuratu**

---

Kontsumo bonuak **azaroaren 15etik 19ra erosi ahal izango dira** SALKIN-en lokalean (Agustin Leiza kalea, 11), izakinak agortu arte. Ilarak saihesteko eta erosketa errazteko, tiket zenbakitu bat eskainiko da ondoren bonua erosi ahal izateko. Erosketa bi eguneko epean formalizatu beharko da (horrek esan nahi du, epe horretan, erabiltzaile bakoitzari bere bonua gordeko zaiola).

Andoaingo adinez nagusi guztiek 50 euroko bonoa erosi ahal izango dute, **25 euroko prezioan**. Horretarako, NANA aurkeztu beharko dute (gehienez ere, bonu bat salduko da NAN bakoitzeko eta pertsonako gehienez bi NAN onartuko dira). **Ordutegia 10:00etatik 12:00etara izango da goizez, eta 16:00etatik 19:00etara arratsaldez**. Erosketa kreditu-txartelarekin ordaindu beharko da, eta ez da eskudirurik onartuko.

**Andoain, 2021eko azaroak 12.**